

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**16672** *2/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzekoa, desgaitasuna duten pertsona guztiei sufragio-eskubidea bermatzeko.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala.

#### HITZAURREA

Espainiako Estatuak tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko eskubidea bermatzen die desgaitasuna duten herritar guztiei. Espainiako Konstituzioak berak horrela xedatu du 14. artikuluan, non aldarrikatzen baitu espainiar guztiak berdinak direla legearen arabera.

Espainian, 2008ko maiatzaren 3an, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa jarri zen indarrean, eta haren 12. artikuluan dago jasota legearen araberako berdintasunerako eskubidea. Desgaitasuna duten pertsona guztiek giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak osotasunez eta berdintasunez goza ditzaten sustatzea, babestea eta ziurtatzea da nazioarteko tratatu horren helburu aitortua, haren 1. artikulua xedatutakoarekin bat. Horretarako, desgaitasuna duten pertsonak gizartean parte-hartze erabateko eta efektiboa izan dezaten bermatzea funtsezko elementu bihurtzen da Espainiak hartutako nazioarteko konpromisoak beteko baditu.

Horri dagokionez, sufragio-eskubidea berdintasunez baliatzea da gizarte demokratiko bateko kideen parte-hartze politikoaren adierazpide gorena. Horrela dago adierazita tratatu horren 29. artikuluan; izan ere, Estatuari eskatzen zaio boto-eskubidea berdintasunez berma diezaiela desgaitasuna duten guztiei, politikan eta bizitza publikoan parte hartzeko beste modu bat den aldetik.

Hori dela eta, alde horretatik, Espainian indarrean den sufragio-eskubidearen erregulazioak talka egiten du Konstituzioan xedatutako legearen araberako berdintasunaren printzipioarekin; izan ere, Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 3. artikulua 1. apartatuko b) eta c) apartatuetan, honako hau dago xedatuta:

«1. Honako hauek ez daukate sufragio-eskubiderik:

b) Epai judizial irmo baten ondorioz ezgai deklaratu direnak, baldin eta epai horrek espresuki adierazten badu sufragio-eskubidea baliatzeko ezgaitasuna dagoela.

c) Baimen judizialaren bidez ospitale psikiatrikoetan barneratutakoak, barneratzeak dirauen bitartean, baldin eta epailearen baimenak espresuki adierazten badu sufragio-eskubidea baliatzeko ezgaitasuna dagoela.»

Funtsezko eskubide bat kanpoan uztea dela eta, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Komiteak, Konbentzioaren 35. artikuluan xedatutakoa betez Espainiari egin zion azterketan, 2011ko irailaren 23ko 62. bilkurako amaierako oharren artean, bizitza politikoan eta publikoan parte hartzeko eskubideari (Tratatuaren 29. artikulua) loturiko gomendio hau ere onetsi zuen:

«47. Komiteari kezkarria iruditzen zaio desgaitasun intelektualen edo psikosozialen bat duten pertsonen boto-eskubidea mugatzeko aukera izatea, baldin eta

interesdunari gaitasun juridikoa kendu bazaio edo interesduna instituzio batean sartu badute. Gainera, arduratuta dago eskubide hori kentzea salbuespena izan beharrean arau bihur daitekeelako. Komiteak alderdi hauen gaineko informazio falta deitoratzen du: zenbateraino diren zorrotzak froga-arloko arauak, zein diren eskatutako arrazoiak eta zer irizpide aplikatzen duten epaileek pertsonari boto-eskubidea kentzeko. Komiteak kezka ikusten du desgaitasuna duten zenbat pertsonari ukatu zaion boto-eskubidea.

48. Komitearen gomendioa da behar diren lege guztiak berrikustea, desgaitasuna duten pertsona guztiek botoa emateko eskubidea eta bizitza publikoan parte hartzeko eskubidea izan dezaten, gainerako baldintza berberetan, alde batera utzita zer urritasun, egoera juridiko edo bizileku daukaten. Komiteak Estatu kideari eskatzen dio 5/1985 Lege Organikoaren 3. artikulua alda dezala; artikulua horretan, boto-eskubidea ukatzeko baimena ematen zaie epaileei, kasu partikular bakoitzean hartutako erabakiak kontuan hartuta. Aldaketa horri esker, desgaitasuna duten pertsona guztiek izan behar dute botoa emateko eskubidea. Gainera, gomendatzen dute kargu publikoren bat betetzeko hautatutako desgaitu guztiei beharrezko asistentzia guztia ematea, laguntzaile pertsonalak barne.»

Azaldutakoa dela-eta, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa berretsita Espainiako Estatuak hartutako konpromisoarekin bat, hau da, desgaitasuna duten guztien funtsezko eskubideak eta askatasuna osotasunez eta benetan baliatzea bermatzeko konpromisoarekin bat, Madrilgo Biltzarrak –Konstituzioaren 87.2 artikuluan ezarritako ahalmenaz baliaturik, bai eta Madrilgo Autonomia Erkidegoaren Estatutuaren 16.3.h) artikuluan xedatutako eskumenaz ere, eta Madrilgo Biltzarraren Erregelamenduaren 175. artikulutik 177. artikulura bitartean eta Diputatuen Kongresuaren Erregelamenduaren 108.3 artikuluan ezarritakoarekin bat– legegintza-ekimen bat gauzatu du, Diputatuen Kongresuan lege-proposamen bat eginez, Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzeko xedez, ondorengo testu artikulatuarekin.

Diputatuen Kongresuaren Osoko Bilkurak lege-proposamen hori aintzat hartuta eta alde zuzenetik parlamentu-fase beharrezko guztiak beteta, Ganbera honen Osokoak testua onartu du, honela:

**Artikulu bakarra.** *Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Legea aldatzea.*

Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Legea honela aldatu da:

Bat. Kentzen dira 3. artikuluan lehen puntuko b) eta c) apartatuak.  
Bi. 3. artikuluan bigarren puntua honela geratzen da idatzita:

«2. Pertsona orok izango du sufragio aktiboa, kontzientea, askea eta borondatezkoa baliatzeko eskubidea, hura komunikatzeko modua edozein dela ere, eta behar dituen laguntza-baliabide guztiak izango ditu.

Hiru. Zortzigarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela idatzita geratzen da:

«Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentziora egokitzeko xedez Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzen duen legea indarrean jartzen denetik, ondorenik gabe geratuko dira ekainaren 19ko 5/1985 Legearen 3.1.b) eta c) apartatuetan oinarrituriko ebazpen judizialen bidez ezarri diren sufragio-eskubidea gauzatzeko mugak; horrenbestez, orain, muga horiek bertan behera uzten dira. Desgaitasunaren ondorioz sufragio-eskubidea mugatuta edo deuseztatuta daukaten pertsonari guztiz itzuliko zaie eskubide hori, lege-aginduz.»

Azken xedapen bakarra. *Indarrear jartzea.*

Lege organiko hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrear.

Horrenbestez,  
Lege organiko hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2018ko abenduaren 5ean.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN